



**Hiztegitxo**

Hobeto irakurtzen laguntzeko



<b>aditu</b> ulertu, konprenitu	«Gaztelania askorik ez zekiten arren, erraz <b>aditzen</b> genion batak besteari.»	(86)
<b>ahalik eta –en</b> albait –en, ahal den eta	«Basoko aztia <b>ahalik eta</b> benenorik indartsuena idoro nahian dabil, gezieta ipini eta albait lasterren hil daitezen.»	(22)
<b>ahardi</b> txerri emea, txerrama	«Bota ezazue itsasora euskaldun <b>ahardi</b> semea!»	(54)
<b>aiene</b> intziria, auhena, kexu oihua	«...goiko geletatik hots batzuk heltzen ziren: alde batetik, arnasots gogor bat eta, bestetik, <b>aiene</b> mehe bat.»	(67)
<b>aihotz</b> matxetea	«Lurra lantzeko tresnak ziren asko, baina osterantzekoak ere baziren: aitzur, (...), <b>aihotz</b> , sega, igitai, sarde, zerra, trontza, golde, (...), arran eta zintzarri.»	(13)
<b>aipu</b> aipamena, aipatzea	«Guk, artean, gazteak ginenez, ez genuen askorik ezagutu, baina errementari-etxean sarri izaten zen haren <b>aipua</b> , soldaduak etortzen zirenean.»	(17)
<b>aitajaun</b> aitita, aitona	«Gogorra izan zuen hasiera, baina hire <b>aitajaunagaz</b> ezkondu eta, harrezkero, hemen egin diat bizimodua.»	(12)
<b>akordu</b> oroipenez, omenaldi gisa	«Ospe handiko ingude joko bat egin zen ene <b>akorduan</b> eta ni ere han izan nintzen ikusleen artean.»	(24)
<b>albait –en</b> ahalik –en, ahal den eta	«Basoko aztia ahalik eta benenorik indartsuena idoro nahian dabil, gezieta ipini eta <b>albait</b> lasterren hil daitezen.»	(22)
<b>aldarte</b> umorea, jarrera	«Hala eta guztiz ere, Otxandioko andrazkoek <b>aldarte</b> onean hartzen zuten euren eginkizuna.»	(9)
<b>aldioro</b> aldi guztietan, beti	«Elenak <b>aldioro</b> bidali dizkit soineko jantziak eta, heltzen zitzaizkidanean, haiei usaina egiten egoten nintzen.»	(146)
<b>amandre</b> amama, amona	«Haietan eskribitu nituen <b>amandreak</b> neguko gau luzeetan kontatzen zizkigun ipuinak eta istorioak...»	(11)
<b>antzarak ferratzera bidali</b> haizea hartzera, pikuak batzera	«...baina itxura txarra hartzen badiat, <b>antzarak ferratzera bidaliko</b> haut.»	(65)
<b>antzu</b> umerik eduki ez dezakeena	«Francisco <b>antzua</b> duk eta berak ere onartzen dik bere muga.»	(96)
<b>apukadu</b> gertatu, agitu, pasatu	«Beste istilu larri bat ere <b>apukadu</b> zen Andretxean, baina egun hartan ez nintzen han izan.»	(19)
<b>arerio</b> etsaia	« <b>Arerioa</b> sekula baino indartsuagoa zela nabarmendu zuen eta, hari aurre egiteko, bitarteko guztiak baliatu behar genituela.»	(158)
<b>arkabuz</b> XVI. mendeko su-arma	«Ugari zegoen soldadua (...) eta ugari armak: aihotz eta ezpatak, pistola eta <b>arkabuzak</b> , baita kanoiak ere.»	(104)
<b>arlote</b> bizimodu traketsekoa	«Uste zitean espainolak zirela jakintsuak eta aurreratuak eta eurak, berriz, <b>arloteak</b> eta atzeratuak.»	(125)
<b>arlote</b> zarpaila, eskekoa	«Nori sinistuko ziotek: abade jaunari ala euskaldun basati eta <b>arlote</b> bati?»	(55)
<b>arran</b> joarea, zintzarri handia (abere)	«Lurra lantzeko tresnak ziren asko, baina osterantzekoak ere baziren: aitzur, (...), aihotz, sega, igitai, sarde, zerra, trontza, golde, (...), <b>arran</b> eta zintzarri.»	(13)
<b>artean</b> orduan, oraindik (irag.)	«Guk, <b>artean</b> , gazteak ginenez, ez genuen askorik ezagutu, baina errementari-etxean sarri izaten zen haren aipua, soldaduak etortzen zirenean.»	(17)
<b>aspaldi luze</b> jada denbora asko dela	«Baina "orain arte" diot, joan den <b>aspaldi luzean</b> lapurreta handi bat egiteko asmoa darabilgulako buruan...»	(6)
<b>asti</b> denbora librea	«...meza ostean tartetxo bat, eta bazkalostean, sueteko garbitasunak egin eta gero, beste bat, horixe zen egonean egoteko zeukaten <b>asti</b> guztia.»	(10)
<b>ataka</b> estualdia	«Gezur bat asmatu eta hauxe esan diot, <b>ataka</b> horretatik ihesi egin gurarik...»	(79)
<b>ate joka</b> deika, hurbil	«Badaukat gorputzean indarra eta bizitzen jarraitzeko gogoia, baina jakitun nago heriotza <b>ate joka</b> daukadala.»	(5)



<b>atundu</b> antolatu	«Isabel lotan zegoen eta, hura itzartu bitartean, handik eroan beharreko gauzak <b>atontzen</b> jardun nuen.»	(111)
<b>atontzen noak</b> prestatzera noa ( <i>hiketan</i> )	«...hi heu Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko gai ez bahaiz, ene esanak sinistu beste biderik ez daukak. Tirok, Intina, <b>atontzen noak</b> .»	(17)
<b>azkon</b> lantza txikia	«Geziak eta <b>azkonak</b> gura adina dauzkagu, igitaiak eta aizkorak ere ugari.»	(21)
<b>azpijoko</b> jarduera makurra	«Halako batean, soldaduetako batek, hura ezin eroan, zutitu, eta <b>azpijokoan</b> zebiltzala egin zuen oihu.»	(18)
<b>azpijokoan ibili</b> amarrukerian, tranpak egiten	«Halako batean, soldaduetako batek, hura ezin eroan, zutitu, eta <b>azpijokoan zebiltzala</b> egin zuen oihu.»	(18)
<b>aztarren</b> aztarna, arrastoa	«Itsasoari begira adi eta erne egon arren, Nikolasen <b>aztarrenik</b> sekuela ere ez zen han agertzen.»	(58)
<b>Balbe</b> heriotza, zori txarra	«Ondo zihoazkidan gauzak, egia esan, baina ezustean, zorigaiztoko egun batean, <b>Balbearen</b> geriza azaldu zen ene inguruan.»	(32)
<b>baldar</b> traketsa, dorpea	«...gure kantuak eta dantzak, gure jatekoak eta janztekoak..., guztia begitantzen zitzaizen traketsa eta <b>baldarra</b> .»	(25)
<b>bariku</b> ostirala, ortzirala	« <b>Barikuak</b> ziren oihalak eta soineko jantziak garbitzeko egunak, eta zapatuak aste guztiko ogiak labean erretzekoak.»	(9)
<b>begirune</b> errespetua	«Gauza on asko dauzkate espainolek, hori egia da, baina indiarrek ere gauza on asko dauzkate, eta gauza on horiei <b>begirunea</b> eduki behar zaie.»	(176)
<b>begitandu</b> iruditu	«Haren irribarrea sekula baino gozoagoa <b>begitandu</b> zitzaidan, eta haren aurpegia sekula baino politagoa.»	(21)
<b>begitarte</b> aurpegiaren itxura	«Zuk, behintzat, ez dakarzu <b>begitarte</b> argirik.»	(111)
<b>begiz jota eduki</b> aukeratuta, <i>fixatuta</i> eduki	«Hamahiru urte bete berritan, <b>begiz jota zeukan</b> enetzako beharra: Bitorian, errementari-etxe batean»	(11)
<b>behar</b> lana, zeregina	«...eta udagoienean, gehienbat, gura adina <b>behar</b> egoten zen guztiontzat: ira, orbel, egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaurre batzen...»	(9)
<b>behargin</b> langilea	«Mota guztietako jendea batzen zen bertan: artisauak, merkatariak, erromesak, abadeak, soldaduak... Baita gu moduko <b>beharginak</b> ere.»	(17)
<b>beharleku</b> lantokia, lantegia	«Gure aitak esaten zian bere gazte denboran judegua zela herriko sekretarioa. Judeguak Espainiatik egotzi zituztenean, hutsik geratu zuan <b>beharlekua</b> ...»	(66)
<b>behinik behin</b> behintzat, bederen	«Ez dakit joko horrek zein zabalera ote zeukan, baina Bitoria inguruetan <b>behinik behin</b> , ondo ezaguna zen.»	(24)
<b>berbaro</b> hitz-hotsa	«Fruitu, landare eta perretxiko bila joan eta, horretan nabilela, <b>berbaroa</b> entzun dut.»	(78)
<b>berriketan jardun</b> hizketan aritu, berbaz, solasean	«Zaharra zela esan dut gorago, baina ondo zeukan burua, eta <b>berriketan jarduteko</b> lagun atsegina zen.»	(147)
<b>bertatik bertara</b> hurbiletik, hur-hurretik	«...hi heu Euskal Herria <b>bertatik bertara</b> ezagutzeko gai ez bahaiz, ene esanak sinistu beste biderik ez daukak. Tirok, Intina, atontzen noak.»	(17)
<b>biharamun</b> hurrengo eguna	«Egunekoado, gehienik ere, <b>biharamuneko</b> a da konpondu beharrekoa.»	(9)
<b>burrundara</b> astrapala, harrabotsa, zarata	«Jendeak, jatekoaren zain zegoen bitartean, ardo pitxerkadak eskatu eta polito edan zuen, eta laster sortu zen kantua eta <b>burrundara</b> .»	(40)
<b>ditik</b> ditu ( <i>hiketan</i> )	«— Jaungoikoa leku guztietan zagok eta Bitoriatik egindako errekuak ere entzungo <b>ditik</b> . Beti edukiko duk haren laguntasuna, hagoen lekuan hagoela.»	(12)
<b>domeka</b> igandea	«...baina Andresek beti ematen zidan diru apur bat <b>domeketan</b> .»	(13)
<b>duk</b> duzu ( <i>hiketan</i> )	«— Jaungoikoa leku guztietan zagok eta Bitoriatik egindako errekuak ere entzungo ditik. Beti edukiko <b>duk</b> haren laguntasuna, hagoen lekuan hagoela.»	(12)



<b>egonean egon</b> ezer egin gabe, denbora pasan	«...meza ostean tartetxo bat, eta bazkalostean, sueteko garbitasunak egin eta gero, beste bat, horixe zen <b>egonean egoteko</b> zeukaten asti guztia.»	(10)
<b>egotzi</b> bota, kanporatu	«Herritik kanpo <b>egotziko</b> nindutela etorri zitzaidan burura.»	(135)
<b>egotzi</b> kanporatu	«Gure aitak esaten zian bere gazte denboran judegua zela herriko sekretarioa. Judeguak Espainiatik <b>egotzi</b> zituztenean, hutsik geratu zuan beharlekua...»	(66)
<b>ei</b> omen, diotenez	«Batean oinaztu ikaragarriak agertzen <b>ei</b> zituan zero goian, hurrengoan etxeak airean eroaten zituen haize zakarra sortzen ei zuan...»	(151)
<b>ekandu</b> ohitu, egokitu	«Hori hire amak erabaki beharko dik, baina nik uste diat Basoan <b>ekantzen</b> haizenean izan daitekeela une egokia.»	(116)
<b>ene</b> nire	«Ziurrenera, <b>ene</b> jokabidea ere ez da izan beti zuzena, baina ez dut ikusi beste irtenbiderik...»	(7)
<b>ene aldean</b> nire ondoan ( <i>konparatuta</i> )	« <b>Ene aldean</b> zaharra zen Domeka...»	(86)
<b>enparauak</b> gainerakoak, beste gauza batzuk	«Arma eta <b>enparauak</b> lortzeko eta eskuratzeko modukoak dituk. Gura izatea duk kontua.»	(153)
<b>eper</b> hegaztia, larreakoa ( <i>perdí</i> )	«...ehizara joaten nintzen: batez ere konejua, erbia, <b>eperra</b> eta galeperra ugari zegoen alderdi hartan.»	(46)
<b>eragotzi</b> oztopatu, ez utzi egiten	«...azken orduan atzera egin eta egia ez esatea <b>eragotzi</b> nahi dute horrela.»	(176)
<b>erakutsi</b> irakatsi	«Ez haiz dagoeneko umegorri bat. Nik, gainera, <b>erakutsi</b> beharreko guztiak erakutsi dizkiat.»	(63)
<b>eralgi</b> dirua gastatu	«Premian agertzen bahaiz, erabili eta <b>eralgi</b> ezak lasai.»	(63)
<b>erkin</b> ahula	«Espainolen artean beti entzun dut indiarren berbetak basatiak, <b>erkinak</b> , nahasiak, ilunak eta atzeratuak direla, baina hori ez da egia.»	(177)
<b>erraturik</b> oker egin (ez: <i>okertuta</i> ) konfun	«...diru eta lantegirik gabe geratuko litzateke, zerua goian eta lurra behean dituela. Ez duzu horrela ikusten ala guztiz <b>erraturik nago?</b> »	(96)
<b>errementari</b> su-arotza, burdin lantzea lanbide	«Hamahiru urte bete berritan, begiz jota zeukan enetzako beharra: Bitorian, <b>errementari</b> -etxe batean»	(11)
<b>esan bazuen, esan zuen</b> ederra sortu zen (iskanbila)	« <b>Esan bazuen, esan zuen</b> . Laster sortu zen eztabaida eta zalaparta. Zer zen hango oihua eta hango iraina!»	
<b>esanak esan</b> dena dela, bueno...	« <b>Esanak esan</b> , han ere ez zen beti beharra. Olgetarako tarteak ere hartzen genituen eta, sarritan, olgetan hasi eta benetan amaitzen genuen.»	(11)
<b>eskorbutu</b> gaixotasuna, bitamina eskasia	«Askoz okerrago joan ziren gauzak gainerako ontzietan: malariak eta <b>eskorbutuak</b> lagun asko akabatu zituzten haietan.»	(59)
<b>estropozo egin</b> tupust egin, behaztopatu	«...bidean labain edo <b>estropezu egin</b> , ur guztia lurrera isuri, eta atzera berriro itzuli behar izaten nuen iturrira.»	(8)
<b>ezin eroan</b> ezin jasan, ezin eutsi / aguantatu	«Halako batean, soldaduetako batek, hura <b>ezin eroan</b> , zutitu, eta azpijokoan zebiltzala egin zuen oihu.»	(18)
<b>ezkaratz</b> sukaldea	«Baina joan gaitezen <b>ezkaratzera</b> . Bide luzea egin duzu eta nekaturik egongo zara. Edateko zer edo zer ekarriko dizut...»	(93)
<b>ezkur</b> haritz eta arteen fruitua ( <i>bellota</i> )	«...eta udagoienean, gehienbat, gura adina behar egoten zen guztiontzat: ira, <b>orbel</b> , egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaur batzen...»	(9)
<b>eztegu</b> ezteia, ezkontza-jaia	«Han ematen dituzte zenbait egun, eurak bakarrik direla eta, handik herrira itzultzean, <b>ezteguak</b> egiten dituzte, egotaldia euren gogokoa izan denean.»	(23)
<b>gaitiztek</b> gaituzte ( <i>hiketan</i> )	«Gainerakoak bakean utzi <b>gaitiztek</b> .»	
<b>gaitz</b> <i>gatxa</i> , zaila	« <b>Gaitza</b> Espainiako eta Euskal Herriko hiriak eta herriak ganoraz eta patxadaz ikusteko aukera edukitzea.»	(17)



<b>galanta</b> itzela, ederra	«Euri zaparrada <b>galantak</b> bota eta gero, berriro argitzen da zerua, eta berehala ateratzen da eguzkia.»	(91)
<b>galeper</b> pospolina, larreakoa ( <i>codorníz</i> )	«...ehizara joaten nintzen: batez ere konejua, erbia, eperra eta <b>galeperra</b> ugari zegoen alderdi hartan.»	(46)
<b>galtzarbe</b> besapea	«Teresaren ondora heldu zenean, buru gaineko oihal zama kendu eta lurrera bota zuen eta, Teresa <b>galtzarbetik</b> harturik, zaldi gainera jaso zuen.»	(33)
<b>gangar</b> gandorra ( <i>cresta</i> ), harro jarrita	«— Lanera etortzeaz gainera, euskara ikastera ere etorri beharko zenukete Arabara —esan zion Eztebek Pedro Migeli, <b>gangarra</b> jasorik.»	(28)
<b>gangarra jasorik</b> burgoi, harroputz, hazkor jarrita	«— <i>Zipia</i> diok? Guk <i>zizpia</i> esaten diagu Gamarran, baina ez <i>benenoa</i> horratik! (...) esan zion Eztebek Pedro Migeli, <b>gangarra jasorik</b> .»	(28)
<b>ganoraz</b> behar bezala, txukun	«Gaitza Espainiako eta Euskal Herriko hiriak eta herriak <b>ganoraz</b> eta patxadaz ikusteko aukera edukitzea.»	(17)
<b>gazitigatu</b> abisatu	«Dena dela, lagun batzuk beti egoten dira zelatan, baten bat baletor besteoi <b>gazitatzeko</b> .»	(44)
<b>gertu egon</b> prest egon	«...haren zati bat jesuiten konpainiari uzteko <b>gertu zegoela</b> , edo niri neuri, hori nahiago banuen...»	(171)
<b>gogaikarri</b> jasanezina, aspergarria	«Eta halako batean, beste hainbat berba hartu eta berriketaldi luze eta <b>gogaikarriak</b> egin eta gero, alde egin zuen Coloniako sasiletratuak...»	(30)
<b>goian zeru t behean lurr ger</b> ezertxo ere gabe geratu	«...diru eta lantegirik gabe <b>geratuko</b> litzateke, <b>zerua goian eta lurra behean</b> dituela. Ez duzu horrela ikusten ala guztiz erraturik nago?»	(96)
<b>golde</b> lurra iraultzeko aparailua	«Lurra lantzeko tresnak ziren asko, baina osterantzekoak ere baziren: aitzur, (...), aihotz, sega, igitai, sarde, zerra, trontza, <b>golde</b> , (...), arran eta zintzarri.»	(13)
<b>gomuta</b> oroipena, akordua, oroitzapena	«Saso hartako <b>gomuta</b> ona daukat.»	(45)
<b>gura adina</b> nahi beste, zenbat gura	«...eta udagoiengan, gehienbat, <b>gura adina</b> behar egoten zen guztiontzat: ira, orbel, egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaur batzen...»	(9)
<b>gurari</b> desioa	«— Zeuk esana da Don Franciscoren <b>guraria</b> izan daitekeela zu ez galtzea eta ni irabaztea...»	(97)
<b>gurtu</b> adoratu	«...haien haserrea baretze aldera, opariak egiten eta, belauniko jarrita, haiek <b>gurtzen</b> hasi zituan.»	(149)
<b>har</b> jakinmina ( <i>zizarea</i> )	«Barruan zaukaat <b>harra</b> eta ezin diat kanpora atera. Dena dela, ez zakiat zer egin eta zelan jokatu.»	(37)
<b>harrezkero</b> ordutik hona	«Itzartu nintzengan, indiar hauek nongoen. Eurek osatu eta zaindu ninduten eta eurek nago <b>harrezkero</b> .»	(79)
<b>higuindurik</b> nazkaturik	«Filipuk eta biok batak bestearengan bilatu genuen babesa. Ikaraturik eta <b>higuindurik</b> geunden, ikusten genuena ezin sinisturik.»	(107)
<b>honezkero</b> oraingo, jadanik	«Otxandioko etxaldeko bazterren batean egongo dira paper haiek guztiak, saguek edo satsak jan ez badituzte <b>honezkero</b> .»	(11)
<b>horrenak egin</b> akabatuta egon	«Teilagina, ostera, ez duk sekula gehiago inon ikusiko. <b>Horrenak egin</b> dik! Horixe duk soldaduekin dagoen legea.»	(19)
<b>huke</b> zenuek ( <i>hiketan</i> )	«— Beldurrak uxatu eta hara ostera bat egin beharko <b>huke</b> .»	(16)
<b>idoro</b> aurkitu	«Basoko Aztia ahalik eta benenorik indartsuena <b>idoro</b> nahian dabil.»	(22)
<b>idoro</b> topatu, aurkitu, kausitu, ediren	«Basoko aztia ahalik eta benenorik indartsuena <b>idoro</b> nahian dabil, gezieta ipini eta al bait lasterren hil daitezen.»	(22)
<b>ihar</b> errea, argala, loditasunik gabea	«Joko horretan nabarmendu nintzen ni. <b>Iharra</b> nintzen gorputzez eta hanka luze bizkorrek nituen.»	(25)
<b>inausi</b> kimatu, landare adartxoak moztu	«Filipuren etxaldean nongoen, mahastia <b>inausten</b> hari laguntzen.»	(89)



<b>ingude</b> metalak lantzeko burdin blokea	«Errementarion artean bageneukan geure-geurea zen joko: <b>ingude</b> eroatea.»	(24)
<b>ipurterre</b> haserrekorra, pazientzia gabea	«Gazte <b>ipurterre</b> batzuei motelegia eta makalegia begitandu zitzaizen hasierako ibilia...»	(159)
<b>ira</b> iratzea, garoa (helecho)	«...eta udagoiengan, gehienbat, gura adina behar egoten zen guztiontzat: <b>ira</b> , orbel, egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaur batzen...»	(9)
<b>iretargi</b> ilargia	« <b>Iretargiaren</b> argitan, distira berezia zeukan haren gorputzeko azalak.»	(21)
<b>itaundu</b> galdetu	«...denbora nola kontatzen genuen <b>itaundu</b> zidan Aztiak.»	(134)
<b>itsumustuan</b> ustekabea	«...hara bidean gindoazela, sei soldadu agertu zitzaizkigun <b>itsumustuan</b> gure aurrean.»	(154)
<b>itzartu</b> esnatu, iratzarri	« <b>Itzartu</b> nintzengana, indiar hauekaz nengoen. Eurek osatu eta zaindu ninduten eta eurekaz nago harrezkero.»	(79)
<b>itzel</b> handia, deigarria	«Eta halako batean, Sevillara heldu ginen. Hiri <b>itzela</b> zen.»	(44)
<b>jaramon</b> kasu, arreta	«Ez zieten, gainera, <b>jaramon</b> handirik egiten txalupan sartzen ziren lagunei.»	(50)
<b>jendaila</b> jende gaiztoa, jendilajea	«— Horrela ez dira gauzak konpontzen, Erramun. <b>Jendaila</b> horri ere mugak non dauden erakutsi behar zaio.»	(18)
<b>Josafaten batu</b> azken judizio lekua (Jainkoak)	«Jaungoikoak guztia dakienez (...) isil eta umil hartuko dut haren erabakia, <b>Josafaten batzen</b> gaituenean.»	(7)
<b>judegu</b> judua (erlijioz)	«Gure aitak esaten zian bere gazte denboran <b>judegua</b> zela herriko sekretarioa. Judeguak Espainiatik egotzi zituztenean, hutsik geratu zuan beharlekua...»	(66)
<b>koskondu</b> zerbait hazi, kozkortu	«Pixkatxo bat <b>koskondu</b> nintzengana, behizain egiten nuen, eta artzain ere bai...»	(9)
<b>lar</b> gehiegi	«Guztira, berrogeita zortzi lagun geunden ontzian; <b>lar</b> , hain leku txikian.»	(52)
<b>larre motzean hazi</b> txirotasunean hazi	«Bai, ez dituk burugogorrek gu moduan, ez dituk <b>larre motzean hazitakoak</b> ...»	(127)
<b>larrugorritan</b> biluzik	« <b>Larrugorritan</b> zeuden, ohean etzanda, neska azpian eta abadea gainean zirela.»	(53)
<b>leher eginik</b> sats eginda, oso nekatuta	«...negu garaian, hozturik, bustirik eta <b>leher eginik</b> heltzen ei ziren Galarretako ostatura.»	(26)
<b>lera</b> trineoa, gurditxo irristakorra	«...oholak ateratzen ditugu han. Gero <b>leretan</b> ekartzen ditugu txabolak dauzkagun lekura.»	(78)
<b>lupu</b> zitara, gaiztoa	«Dudarik gabe, Nuño Enriquez izan zitekeen haietako bat. Ezagutzen nuen eta <b>lupu</b> galanta zen.»	(139)
<b>lurregaz berdindu</b> erabat suntsitu, eraitsi	«...indiarren bizilekuak <b>lurregaz berdindu</b> eta birrintzen dituzte, eta haien ondasunak erre, hondatu edo bereganatzen dituzte.»	(6)
<b>martitzen</b> asteartea (bizk.)	«Eguna zabaldu orduko itzartu ginen <b>martitzen</b> goizean. Bagenekien betiko bizimodura itzuli behar genuela...»	(95)
<b>mozolo</b> inuzentea, leloa	«— Hi bai <b>mozoloa</b> ! Soldaduendako ez zagok gizalegerik. Horiek euren legeak zauzkatek.»	(19)
<b>musu</b> aurpegia	«»Gailetak eman zizkidaten, baina gailetok jateko, eskuak eta <b>musua</b> ondo garbitu beharko dituzue.»	(21)
<b>nafarrerri</b> gaixotasun birikoa (viruela)	« <b>Nafarrerria</b> , tifusa eta elgorria, gehienbat, gaitz larriak ziren indiarrentzat.»	(129)
<b>nagiak harturik egon</b> alfertuta ibili	«Antonengandik banatu nintzenetik, <b>nagiak harturik nengoen</b> , eta siziliar haiek sartu ninduten atzera berriro suetea.»	(87)

<b>nahigabe</b> atsekabea, disgustua	«...nazio euskaldun horretatik ihes egin beharrak, eta sekula gehiago hara itzuli ezinak, sortzen zidan <b>nahigabea</b> .»	(47)
<b>neskatila</b> neska nerabea (15-16 urte)	«Titiak txikiak, baina, dagoeneko, tenteak eta erneak zituela konturatu nintzen, neskato izatetik <b>neskatila</b> izatera aldatzen zegoen seinale.»	(21)
<b>neskato</b> neskatxoa (gaztea)	«Titiak txikiak, baina, dagoeneko, tenteak eta erneak zituela konturatu nintzen, <b>neskato</b> izatetik neskatila izatera aldatzen zegoen seinale.»	(21)
<b>nondar</b> zein jatorrikoa	«Ez zegoen argi nortzuk eta <b>nondarrak</b> ziren. Arabarrak zirela, giputzak zirela, nafarrak zirela..., gauza asko entzuten zen.»	(26)
<b>ohol</b> zurezko xafla laukitua	«Baso barrenera joan, arbolak bota, eta zuloen barrua estaltzeko <b>oholak</b> ateratzen ditugu han. Gero leretan ekartzen ditugu txabolak dauzkagun lekura.»	(78)
<b>oinaztu</b> inisitua, tximista	«Batean <b>oinaztu</b> ikaragarriak agertzen ei zituan zeru goian, hurrengoan etxeak airean eroaten zituen haize zakarra sortzen ei zuan...»	(151)
<b>olgetan</b> jolasten	«Hirugarren egunean, afari legea egin eta gero, Fernando erre kara joan zen <b>olgetan</b> , eta Isabel eta biok geratu ginen bata bestearen ondoan.»	(113)
<b>olgetan</b> jolasten	«Esanak esan, han ere ez zen beti beharra. Olgetarako tar teak ere hartzen genituen eta, sarritan, <b>olgetan</b> hasi eta benetan amaitzen genuen.»	(11)
<b>ondo ezaguna izan</b> ospetsua, famatua	«Ez dakit joko horrek zein zabalera ote zeukan, baina Bitoria inguru etan behinik behin, <b>ondo ezaguna</b> zen.»	(24)
<b>onguramin</b> apeta, kapritxoa, <i>antojua</i>	«...harrezkero, mezu guztien amaieran egin ohi zidan agur berbera: "Zugaz egoteko <b>onguramina</b> daukat".»	(147)
<b>oniritzi</b> maitatu, apreziatu	«Otxandioko abadeak kristauaren zeregin nagusia lagun hurkoari norbere buruari beste <b>oniritzea</b> dela esaten zuen...»	(124)
<b>orbel</b> hosto erorien piloa	«...eta udagoi enean, gehienbat, gura adina behar egoten zen guztiontzat: ira, <b>orbel</b> , egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaur batzen...»	(9)
<b>ordain</b> parekoa, baliokidea	«...Basoan egon naizen urteetan ikasi ditudan berbak ere ipini ditut eta, haien aldamenean, nahuatlean, euskaraz eta gaztelaniaz dituzten <b>ordainak</b> .»	(177)
<b>ortuari</b> soloko jangaiak ( <i>verdura</i> )	«Benetan gozo egon zen afaria. <b>Ortuariak</b> , arraina eta haragia jan genituen...»	(70)
<b>osatu</b> gaixotasuna sendatu	«Itzartu nintzenean, indiar hauek az nengo en. Eurek <b>osatu</b> eta zaindu ninduten eta eurek az nago harrezkero.»	(79)
<b>ostera</b> bueltatxoa, ibilalditxoa	«— Beldurrak uxatu eta hara <b>ostera bat</b> egin beharko huke.»	(16)
<b>osterantzeko</b> bestelakoa	«Lurra lantzeko tresnak ziren asko, baina <b>osterantzekoak</b> ere baziren: aitzur, (...), aihotz, sega, igitai, sarde, zerra, trontza, golde, (...), arran eta zintzarri.»	(13)
<b>ostu</b> lapurtu, ebatsi	«Espainiako erre geari traizioa egin diodala esango dute, haren soldaduak hil eta haren ondasunak <b>ostu</b> ditudala...»	(5)
<b>patin</b> ur-zuloa, putzu artifiziala	« <b>Patina</b> zegoen patioaren bazter batean eta eta Don Franciscok, handik ura atera, eta edateko eskaini zidan.»	(69)
<b>pattar</b> edari alkoholiko distilatua	«Hain zuzen, hamahiru urte bete berritan edan zuen lehen aldiz <b>pattarra</b> .»	(148)
<b>patxadaz</b> astitsu, presa barik	«Gaitza Espainiako eta Euskal Herriko hiriak eta herriak ganoraz eta <b>patxadaz</b> ikusteko aukera edukitzea.»	(17)
<b>pitxerkada</b> jarrokada	«Jendeak, jatekoaren zain zegoen bitartean, ardo <b>pitxerkadak</b> eskatu eta polito edan zuen, eta laster sortu zen kantua eta burrundara.»	(40)
<b>premia</b> estutasuna, larrialdia	« <b>Premian</b> agertzen bahaiz, erabili eta eralgi ezak lasai.»	(63)
<b>samin</b> tristura, mina, tristura	«...luzaroan iraun zuen ene bihotzean mutil errugabe haren heriotzak utzi zidan <b>saminak</b> .»	(58)
<b>sarri</b> itxia, zarratua	«Alderdi honetan baso <b>sarria</b> da guztia eta lagun gutxi bizi da.»	(153)



<b>sarri</b> askotan, maiz, usu	«Guk, artean, gazteak ginenez, ez genuen askorik ezagutu, baina errementari-etxean <b>sarri</b> izaten zen haren aipua, soldaduak etortzen zirenean.» (17)
<b>sasoi onean egon</b> forma onean	«Gainera, errementariako mandatuak egiteko batera eta bestera ibili behar izaten nuenez, <b>sasoi onean egoten</b> nintzen.» (25)
<b>sits</b> bipia, intsektu egur jalea	«Otxandioko etxaldeko bazterren batean egongo dira paper haiek guztiak, saguek edo <b>sitsak</b> jan ez badituzte honezkero.» (11)
<b>suete</b> sukaldea	«...meza ostean tartetxo bat, eta bazkalostean, <b>suete</b> ko garbitasunak egin eta gero, beste bat, horixe zen egonean egoteko zeukaten asti guztia.» (10)
<b>-t(z)e aldera</b> -t(z)earren	«...haien haserrea <b>baretze aldera</b> , opariak egiten eta, belauniko jarrita, haiek gurtzen hasi zituan.» (149)
<b>tirok</b> ea ba ( <i>hiketan</i> )	«...hi heu Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko gai ez bahaiz, ene esanak sinistu beste biderik ez daukak. <b>Tirok</b> , Intina, atontzen noak.» (17)
<b>trosta</b> zaldien ibilera, galapan	«Neskak harrapatzearen joan ziren soldaduak <b>trostan</b> .» (106)
<b>txolet</b> edalontzia, potea	«...Estefano genoarra zutitu, ardo <b>txoleta</b> goratu, eta haxe esan zuen euskara garbian...» (100)
<b>udagoien</b> udazkena	«Geroago, behiak uztartu eta soroko zereginetan lagundu ohi nion aitari, eta <b>udagoienean</b> , gehienbat, gura adina behar egoten zen guztiontzat.» (9)
<b>udagoien</b> udazkena (urtaroa)	«...eta <b>udagoienean</b> , gehienbat, gura adina behar egoten zen guztiontzat: ira, orbel, egur, gaztaina, sagar, hur, ezkur eta intxaur batzen...» (9)
<b>untza</b> iltza	«...jokalaria bakoitzaren <b>untzak</b> kontatu eta gehien zeuzkanak irabazten zuen. <b>Untzak</b> esaten dut nik, baina Bitorian <b>iltzeak</b> esaten zen.» (24)
<b>urkamendi</b> urkatzeko lekua	«Hi harrapatu eta <b>urkamendira</b> eroan arte ez dutela etsiko...» (36)
<b>uxatu</b> aldendu, urrundu	«— Beldurak <b>uxatu</b> eta hara ostera bat egin beharko huke.» (16)
<b>uztartu</b> elkartu, batera jarri	«Geroago, behiak <b>uztartu</b> eta soroko zereginetan lagundu ohi nion aitari...» (9)
<b>zaildu</b> gogortua, lanean luze aritua	«Gainerakoan iharra zen, baina besoak eta hankak sendoak zituen, lanean <b>zailduak</b> .» (170)
<b>zamaketari</b> zama garraiolaria	«Filipuren lagun bi zebiltzan kaian <b>zamaketari</b> .» (153)
<b>zapparro</b> potoloa, lodikotea	«Eta burua horretan neukala, Fernando, zortzi urteko mutiko <b>zapparroa</b> zutitu zen, ur txoleta eskuan zuela.» (101)
<b>zapatu</b> larunbata ( <i>sabbat</i> , hebr.)	«Barikuak ziren oihalak eta soineko jantziak garbitzeko egunak, eta <b>zapatuak</b> aste guztiko ogiak labean erretzekoak.» (9)
<b>zarraparra</b> iskanbila, sesioa	« <b>Zarraparra</b> eta zalaparta sarri izaten ziren hura zebilen lekuetan.» (14)
<b>zer zen hango oihua</b> han bai han oihua-eta	«Esan bazuen, esan zuen. Laster sortu zen eztabaida eta zalaparta. <b>Zer zen hango oihua</b> eta hango iraina!»
<b>zeritzan</b> deitzen zen	«Plazentziakoa zen eta Andres Txurruka <b>zeritzan</b> .» (13)
<b>zezeila</b> otsaila	« <b>Zezeila</b> zenez, irten berri zeuden urtarrilekoak eta beterik abuztuko txandako lekuak.» (45)
<b>zintzarri</b> aberei lepoti, kanpaitxo antzeko	«Lurra lantzeko tresnak ziren asko, baina osterantzekoak ere baziren: aitzur, (...), aihotz, sega, igitai, sarde, zerra, trontza, golde, (...), arran eta <b>zintzarri</b> .» (13)
<b>zipi</b> pozoina, benenoa	«— <b>Zipia</b> diok? Guk <i>zipia</i> esaten diagu Gamarran, baina ez <i>benenoa</i> horratik! (...) esan zion Eztebek Pedro Migeli, gangarra jatorrik.» (28)
<b>ziurrenera</b> seguruenik	« <b>Ziurrenera</b> , ene jokabidea ere ez da izan beti zuzena, baina ez dut ikusi beste irtenbiderik...» (7)





<b>zizeilu</b> jarleku bizkarduna, zitzailua	«Itzuli nintzenean, ezkaratzeko <b>zizeiluan</b> jarririk zegoen eta ni ere haren ondora joan nintzen.»	(93)
<b>zohi</b> lur-puska belarduna	«Zuloak gertu daudenean, ahalik eta ondoen estaliko ditugu; <b>zohiak</b> , orbela eta adarrak gainean ipini, inork ikus ez ditzan.»	(44)
<b>zohi</b> lur puska, belarra duena	«Zuloan gertu daudenean, ahalik eta ondoen estaliko ditugu; <b>zohiak</b> , orbela eta adarrak gainean ipini, inork ikus ez ditzan.»	(44)
<b>zuri</b> faltsua	«Ez zuen sekula begietara begiratzen; lurrera begira egiten zuen berba. Pertsona <b>zuria</b> zen. Guztiei zien inbidia eta guztien beldur zen.»	(139)
<b>zurrut</b> edatea, hurrupa	«Soldaduak hurreratu eta eurakaz edatera konbidatu ei zituzten. Zarraparra, zarata eta <b>zurruta</b> ei ziren nagusi.»	(19)